


SARRERA

Gu Maidere, Lara, Imanol eta Iraia gara, Leioan dagoen Barandiaran ikastetxeko 2. Batxilergoko ikasleak eta hona hemen gure canvas ereduaren oinarritutako proiektua aurkeztuko dizuegu.



Hasiera batean, bakoitzak ideia bat geneukan:

- Lararen ideia, itsaso azpian jatetxe bat eraikitzea zen, eta han lan egiten zutenak makina batzuk ziren, horretaz aparte ordaintzeko txartel berezi batzuk sortzea esan zuen, baina azkenean ez zen ekonomikoki eta ekologikoki ideia onena.
- Maidarren proiektua lokal bat diseinatzea izan zen, bertan hainbat ekintza desberdinak proposatzen ziren, hala nola, dantza egitea, margozteia, tailer ezberdinak...
Gainera, lortzen genuen dirua, lurra zaintzeko inbertuko zela adostu zen, honetarako txartel bereziak jarriko genituen. Azkenean, ez zen errentagarria eta proiektua aurrera eramateko, gure taldea oso txikia zela ondorioztatu genuen.
- Imanolen kasuan, animalia kaleratuak eta hirugarren adineko pertsonak elkar egon ahal ziren leku berezi bat sortzea proposatu zuen, honela haien artean maitasuna eta konpainia eman ahal izateko eta aldi berean animaliei bizitzeko beste aukera bat emateko. Baina, ideiarekin arazoak sortu ziren, nagusi guztiak ez direlako animaliekin egoteko kapazak eta animaliak ez dira pertsona guztiekin egoteko kapazak. Horretaz gain, pertsonak eta animaliak zaintzeko gastuak oso altuak ziren eta ezinezkoa zen plana aurrera eramatea.






Azkenean, Iraiaren ideiak taldearen helburua betetzen zuen: herritarrei ekonomikoki laguntzea zen era ekologiko batean. Guztioei gustatu zitzaigun eta taldean sortu ziren ideiak gehituzkoan, gure proiektuaren irudia sortu zen.

Gure enpresaren izena **Boden** da eta helburua herriko enpresek hasierako inbertsioaz gain inolako ahalegin berezirik egin gabe energia sortzea eta horrekin dirua aurrezte da. Gure ideia Energia sortzeko hori zoru hori kokatzen den leku desberdinetako mugikortasunari esker irabazten dutelako. Zorua zapaltzerakoan energia ekologikoa sortzen da eta erabili ahal den energian bihurtzen da.

Pentsatu dugun ideia ez da beste inon merkaturatzen gaur egun eta produktu hori sortzen dugun enpresa bakarra gara. Aipatu bezala, ziurta diezazukegu oso errentagarria dela enpresaren kontsumorako argi indarririk ordaindu behar ez izateko.

Gure lehiakide nagusia, Twenergy enpresa da. Beraien lurzorua, piezoelektriko sistemarekin funtzionatzen du, hau da pisuaren eraginez sortzen du energia.

Gure proiektuaren balioa enpresa honekiko lortzen duen energia kantitatean datza. Egindako ikerketa eta saiakerak erakutsi duten bezala mugimenduaren bidez m²ko %20ko energia gehiago izango dugu.



Gure proiektuaren maketa:

